



EBAZPENA, 2018ko urriaren 18koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten eta 2018-2019 ikasturterako hezkuntza laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetarako laguntza-deialdia ebazten duena. Deialdia Hezkuntza sailburuaren 2018ko irailaren 13ko Aginduaren bidez arautu zen.

2018ko ekainaren 13ko Aginduaren bidez (ekainaren 25ko EHAA) Hezkuntza Saila honek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzen dituzten eta 2018-2019 ikasturterako Hezkuntza Laguntzako Espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia egin zuen.

Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, eta behin guztiak aztertuta, 2018ko ekainaren 13ko Aginduan ezarritako izapide guztiak bete ondoren, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan eta hezkuntza laguntzako espezialistak kontratatu beharra duten itunpeko ikastetxe pribatuei diru-laguntzak ematea 2018-2019 ikasturterako. Ebazpen honen eranskinean jasota dago ikastetxe horien zerrenda.

Bigarrena.– Ebazpen honetan ezarritako diru-zenbatekoak gehienez ordainduko diren diru-kopuruak dira, eta langileak eta dagokion ikastetxeak izenpetutako lan-kontratuaren iraupenaren eta ordu-kopuruaren arabera ordainduko dira, betiere, deialdian ezarritako muga barruan.

Hirugarrena.– Laguntza hiru ordainketetan ordainduko da, 2018ko ekainaren 13ko Aginduaren 11. artikuluan jasotzen denez.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, beraz, beraren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, jakinarazpen elektronikoaren hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Bosgarrena.- Ebazpenak jakinarazi eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 18a.

Lucia Torrealday Berrueco

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1CVJ-2G38 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1CVJ-2G38 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>